

12. gaia: Euskararen jatorriari buruzko hipotesiak

Bigarren Hizkuntza II: Euskara

2018/2019

Ricardo Gómez

Bibliografia pixka bat

Mitxelena, Koldo, 1964, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Donostia: Auñamendi. Berrargit. in OC, V, 1-115.

Trask, Robert L., 1998, [“Euskararen etorki eta ahaideak: datuen analisisa”](#), *Uztaro* 26, 81-108.

Trask, Robert L., 2014 [1997], *The History of Basque*, Londres & New York: Routledge. [6. kap.]

Helburuak

- Ahaidetasunari buruzko hipotesi nagusiak dagokien ordena kronologikoan birpasatzea.
- Haien oinarrian egon diren ideiak edo usteak azaleratzea.
- Hipotesien ahuleziak erakustea, batez ere ikuspegi metodologikotik.
- Metodoek, baita hizkuntzalaritza konparatzailean ere, ezartzen dituzten mugen garrantziaz ohartaraztea.

Egitura

1. Sarrera: zer da “jatorria”?
2. Euskara eta Kaukasoko hizkuntzak
3. Euskara eta Afrikako hizkuntzak
4. Euskara eta europa zaharra
5. Euskara eta hizkuntza indoeuroparrak
6. Makrokonparaketa
7. Desziframendu handiak

1. Sarrera

- **Larry Trask (1944-2004) euskalariaren [webgunean](#):**

“I do not want to hear about the following:

Your latest proof that Basque is related to Iberian / Etruscan / Pictish / Sumerian / Minoan / Tibetan / Isthmus Zapotec / Martian

Your discovery that Basque is the secret key to understanding the Ogam inscriptions / the Phaistos disc / the Easter Island carvings / the Egyptian Book of the Dead / the Qabbala / the prophecies of Nostradamus / your PC manual / the movements of the New York Stock Exchange

Your belief that Basque is the ancestral language of all humankind / a remnant of the speech of lost Atlantis / the language of the vanished civilization of Antarctica / evidence of visitors from Proxima Centauri”

1. Sarrera

- Zer da hizkuntza baten (euskararen) “jatorria”?:
 - a) euskararen egoerarik zaharrena bilatzea
 - b) euskara zein beste hizkuntzarekin lotu daitekeen aztertzea, eta haien arteko konparaketatik guztien ama zen hizkuntza lortzea

1. Sarrera

- Hizkuntzaren historia / historiaurrea (Mitxelena 1963):
 - a) historia: lekukotasun idatziak (filologia);
 - b) historiaurrea: berreraiketa → aitzin hizkuntzak (hipotesiak).

1. Sarrera

- Hizkuntz berreraiketarako metodoak:
 - a) barne berreraiketa: irregulartasunak → antzinako egitura erregularra;
 - b) metodo konparatzailea: korrespondentzia fonologiko sistematikoak ← hots aldaketaren erregulartasuna.
 - ✓ kognatuak konparatu
 - ✓ korrespondentzia sistematikoa aurkitu
 - ✓ aitzinforma berreraiki
 - ✓ erregelak proposatu

1. Sarrera

- Berreraiki ezazue ordinaletarako jatorrizko atzizkia eta azaldu zein aldaketa gertatu den (huli, Papua Ginea Berriko hizkuntza):

tebo	tebone	‘three’
ma	mane	‘four’
dau	dauni	‘five’
waraga	waragane	‘six’
ka	kane	‘seven’
hali	halini	‘eight’
di	dini	‘nine’
pi	pini	‘ten’
hombe	hombene	‘eleven’

1. Sarrera

- Kognatuak konparatu:

	<i>Sardinian</i>	<i>Italian</i>	<i>Romansh</i>	<i>French</i>	<i>Spanish</i>
'100'	kentu	tʃento	tsjent	sã	θjen
'sky'	kelu	tʃelo	tsil	sjel	θjelo
'stag'	kerbu	tʃervo	tsɛrf	sɛR	θjerbo
'wax'	kera	tʃera	tsaira	siR	θera

- Korrespondentzia sistematikoa aurkitu:

Sard *k-* : It *tʃ-* : Rom *ts-* : Fr *s-* : Sp *θ-*

- Aitzin-fonema berreraiki: ??

1. Sarrera

- **Morfologiaren papera:** paradigmaren pisua (beren erregulartasun eta irregulartasunekin)

Latina	Grez. zah.	Sanskritoa	Hitita
<i>sum</i>	<i>eimí</i>	<i>asmi</i>	<i>esmi</i>
<i>es</i>	<i>ei</i>	<i>asi</i>	<i>essi</i>
<i>est</i>	<i>esti</i>	<i>asti</i>	<i>eszi</i>
<i>sumus</i>	<i>esmén</i>	<i>smas</i>	<i>eswani</i>
<i>estis</i>	<i>esté</i>	<i>sth</i>	<i>esteni</i>
<i>sunt</i>	<i>eisí(n)</i>	<i>asanti</i>	<i>asanzi</i>

1. Sarrera

- Hizkuntzen arteko konparaketa → hizkuntza familiak (indoeuroparra, semitikoa, austronesioa, maya, algonkinoa, etab.; Campbell 1998: 164-165).
- Euskara: hizkuntza isolatua + Europako Mendebaldeko hizkuntza ez-IE bakarra → ahaideak aurkitzeko “beharra” (XIX. mende hasieratik eta ugari azken 50 urteetan):
 - makrokonparaketa;
 - populazioen genetika (Cavalli-Sforza eta beste).

1. Sarrera

- Trask (1997: 358): euskara / \pm 30 hizkuntza eta familia. Arazoak:
 - nolabaiteko antzekotasuna erakusten duten hitz **zerrenda bat azaletik** konparatzen dute;
 - autoreek **ez dakite euskara nahikorik**, ez euskararen historiaz, eta ezta hizkuntzalaritza historiko eta konparatzailearen metodo eta teoriez ere.

1. Sarrera

- Euskararen ezagutza eskasa:
 - hiztegi elebidunak (Azkue, Aulestia, Mugika, Retana);
 - konparaketa-lan serio batean ezinezkoak diren elementuak (Trask 1997: 359):
 - latinetikako edo erromantzeetikako maileguak;
 - hitz elkartu eta eratorri gardenak;
 - hitz onomatopeikoak eta adierazgarriak;
 - euskalki bateko forma sekundarioak;
 - neologismo modernoak;
 - euskal hitzak oker aipatu, gaizki itzuli; euskaraz existitzen ez diren elementuak, *ad hoc* berreraiketak;
 - morfema-zatiketa arbitrarioak; arrazoirik gabeko aldaketak.

1. Sarrera

- **Euskararekin lotu diren zenbait hizkuntza eta familia:**
 - Hizkuntza kartvelikoak (georgiera)
 - Kaukasoko iparraldeko hizkuntzak
 - Hizkuntza hamito-semitikoak (berberera)
 - Niger-Kongo hizkuntzak (kikuyu, dogon)
 - Hizkuntza uralikoak
 - Hizkuntza dravidiarak
 - Txinera(k)
 - Egiptoera
 - Na-dene hizkuntzak (Ameriketan)
 - Sumeriera
 - Etruskoa
 - Minoikoa
 - Piktoera
 - Hizkuntza zeltikoak
 - Europera zaharra
 - Hizkuntza siberiarrak (ieniseikoak)
 - Hizkuntza austronesioak
 - ...

2. Kaukasoko hizkuntzak



2. Kaukasoko hizkuntzak

- Antzekotasun tipologikoak (morfologia ergatiboa, aditz komunztadura sistema oso aberatsak) → lotura genetikoak
- Hizkuntza ez-IEak Europako bi muturretan → IEen aurretik European mintzatzen ziren hizkuntzen aztarnak.

2. Kaukasoko hizkuntzak

- Irizpide metodologiko serioxeagoak:
 - Schuchardt, Uhlenbeck, Trombetti, Dumézil, Lafon;
 - Bouda: ia 500 ustezko kognatu → Mitxelenaren (1950) kritikak.

2. Kaukasoko hizkuntzak

- Vogt-en (50etan) kritikak; zenbait hizkuntzalariren onespena (Tovar 1959). Arazoak:
 - Kaukasoko hizkuntzen arteko erlazioa: talde kartvelikoa, edo hegoaldekoa (georgiera barne) ziurra; iparraldeko hiru taldeak zalantzazkoak;
 - konparaketa aitzin-hizkuntzen artean, ez gaurko hizkuntzen artean;
 - Mitxelena (1964, 1968, 1979):
 - azaleko antzekotasunak;
 - korrespondentzia sistematiko sinesgarririk ez;
 - euskara gutxi ezagutu (Lafonek salbu);
 - ez dute euskararen historiaurrea hobeto ezagutzeko ezertan ere laguntzen.
 - duela 2.000 urteko euskararen ezinezkoak ziren formak: *zain* (< **zani*), *-a* (< **har*), *etab.*
 - mailegu erromantzeak: *zango*.

2. Kaukasoko hizkuntzak

- Braun (1998): euskara / hizkuntza kartvelikoak:
 - korrespondentzia sistematikoak gehienetan hitz bateko osagai batekoak dira (→ ez sistematikoak): georg. zah. *rcqwa* ‘ureztatu’ : eusk. *iturri* (*c* : *t* korrespondentzia).
 - Mitxelenaren berreraiketa-lana aintzat hartu ez: mailegu garbiak, forma berriak (*mutur*, *patar*, *korotz*);
 - justifikatu gabeko berreraiketak: *orri* < **ortzi*, edo *luze* < **lurze*;
 - hitz adierazgarriak erruz: *zomorro*, *koko*, *marmara* ‘armiarma’, etab.

2. Kaukasoko hizkuntzak

- Chirikba (1985): 90 kognatu euskara eta iparraldeko kaukasikoen artean; errakuntzak:
 - asmakizunak: *-ar pl. atz., *ilu ‘mugitu’, *giz ‘gizon, pertsona’, *ba ‘seme, ume’, *xor ‘txakur’;
 - maileguak: kolko (< lat. COLPUM) ‘titi’ (!), aditu (< lat. AUDITUM), busti (< okz. musti), gela (< lat. CELLAM);
 - euskalkietako aldaera berriak: maguri, eta ez marrubi (< lat. MARRUBIUM);
 - morfema-zatiketa arbitrarioak: (biz)kar, (han)di, la(gun);
 - hitz adierazgarriak: mara-mara ‘ugari’ (!).

2. Kaukasoko hizkuntzak


- Bengtson (2011):

	stability rank	BASQUE	CAUCASIAN ¹²				
			Chechen	Avar	Lak	Dargi	Lezgi
die ¹³	13	*hil	=al-	=al'-	=i=č'a	=ebk'-	q'i-
dog	16	*hor	pħu ¹⁴	hoy		ɣa	
dry	24	*agorr	=eq'a	=aq'wara-	q'a-q'-	=erGu-	q'ura-
ear	32	*be=larri	ler-g			leħi	
eye	4	*b(=)egi	b ^ç är-g	ber	ya	ħuli	wil
fire	7	*śu	ts'e	ts'a	ts'u	ts'a	ts'ay
horn	44	*a=darr	kur	tl:ar			
I	3	*ni			na	nu	
not	30	*es / *se	tša	-č'o			-č
smoke	36	*kee		k':uy	k'u ^w ¹⁵	k:aw	
star	40	*i=sarr		ts':wa	ts'u-ku	zuri	
thou	5	*hi /-ga- ¹⁶	ħo			ħu	
tongue	8	*minhi	mott	mats':	maz	mets:	mez
tooth	22	*hortš		gožó ¹⁷	k:arč:i	k:anži ¹⁸	
two ¹⁹	2	*bi		k'i-go	k'i-a	k'wi	q'we-d
we ²⁰	1	*gu	tɣo			nu-xa	
what	12	*se-r	stē-(n)	s:u-n-	s:a-	s:e	

2. Kaukasoko hizkuntzak

- Kaukasoko hizkuntzak (bereziki iparraldekoak) hautagairik txarrenak; arrazoiak:
 - sistema kontsonantiko oso zabalak, batez ere iparraldeko hizkuntzetan;
 - aitzinkartvelikoaren eta aitzineuskararen erroek oso egitura desberdina (Lakarra 1998b). Georg.:
 - *prkveva* ‘bota’
 - *pxvnili* ‘hautsa’
 - *c’vrtna* ‘entrenamendua’
 - *brdyvna* ‘borrokatu’

3. Afrikako hizkuntzak



3. Afrikako hizkuntzak

- Hipotesi eusko-berbera edo eusko-kamitikoa:
 - XIX. m.: von Gabelentz, Schuchardt.
 - XX. m.: Mukarovsky. Azken lanetan makrofamilia afroasiatikoa ere sartu (hizkuntza semitikoak, egiptoera zaharra eta koptoera, eta talde berber, kushitiko eta txadikoak).

3. Afrikako hizkuntzak

- Mukarovskyren errakuntzak:
 - latinetikako eta erromantzeetikako maileguak: *lili*;
 - neologismo sabindarra: **aba* ‘aita’;
 - hitz onomatopeikoak: *tu*;
 - bazter aldaerak: ek. *ebri*, *huri*-ren aldaera;
 - euskal hitzak hizkuntza berbere edo afroasiatiko batekin konparatu; edo zenbait hizkuntzatakoekin, baina jatorri komun ziurrik ez duten elementuekin: eusk. *izen* / ber. *isem* ‘idem’ (< ar. *ism*) (Trask 1997: 362).

3. Afrikako hizkuntzak

- Aditzaren 2. perts. sing.: eusk. **-ga, -na* (edo **-naga*) / ber. *-k, -m*.
- Mukarovsky (1981): euskara / mande hizkuntzak (ekialdeko Afrika); errakuntzak:
 - maileguak: *kolko*;
 - itzulpen okerrak: *toka* ‘you’ → mandinga *to* ‘izen’;
 - konparaketa harrigarriak: eusk. *belaun* / mande *kumbalin, khimbi, kpuo*; eusk. *odol* / mande *dyelo, woli*; eusk. *(h)or* ‘txakur’ / mande *wulo, gbane, etab.*

3. Afrikako hizkuntzak

- Euskara eta kikuyua (Schuhmacher & Seto 1994):

1. KIKUYU “ithoni” (= source, spring) =
BASQUE “iturri” (=source, spring) ;
2. KIKUYU “iria” (= lake) =
BASQUE “ura” (= water) ;
3. KIKUYU “-andũku” (= large) =
BASQUE “andi” (= large) ;
4. KIKUYU “-nini” (“nyinyi”) (= small) =
BASQUE “ñimiño” (= small) ;
5. KIKUYU “guoko” (= hand) =
BASQUE “(esku-) xoko” (= palm) ;
6. KIKUYU “mbegũ” (= seed) =
BASQUE “bikor” (= grain) ;
7. KIKUYU “aria” (= to speak) =
BASQUE “erasi” (= to speak) ;
8. KIKUYU “aka” (= to build) =
BASQUE “egin” (= to build) ;
9. KIKUYU “ura” (= to rain) =
BASQUE “uri” (= rain) ;
10. KIKUYU “-kuĩ” (= short) =
BASQUE “gutxi” (= short) ;
11. KIKUYU “ithe” (= father) =
BASQUE “aita” (= father) ;
12. KIKUYU “aca” (= no) =
BASQUE “ez” (= no) ;
13. KIKUYU “niĩ” (= I) =
BASQUE “ni” (= I) ;
14. KIKUYU “we” (= he) =
BASQUE “bera” (= he) ;
15. KIKUYU “tũ-” (= we) =
BASQUE “gu” (= we) ;
16. KIKUYU “-kuĩ” (= dead) =
BASQUE “kuku egin” (= to die) ;
17. KIKUYU “ikara”, “aka” (= to dwell) =
BASQUE “egon” (= to dwell) ;
18. KIKUYU “iguĩra” (= to fear) =
BASQUE “ikara” (= fear) ;

3. Afrikako hizkuntzak

- Euskara eta dogon hizkuntzak (2013):

Dogon	Euskara
<i>bana</i> 'banandu'	banandu
<i>gogoro</i> '(gogor) heldu, atxiki'	gogortu
<i>kwiye</i> 'kuia, kalabaza'	kuia
<i>sani de</i> 'anaia'	senide
<i>soro</i> 'ereiteko lurra'	soro

4. Europera zaharra

- Europako jatorrizko hizkuntzak; ustezko zeharkako datuak:
 - hizkuntza IEetan eragina → hizkuntza zeltikoetan IE ez diren ezaugarriak azaltzeko (hasierako aditza, hogeikako sistema, kontsonante mutazioak);
 - indoeuroparrak heldu aurretik, Europako hizkuntz eremu homogeneoa (“mediterraneotarra”, “paleuroparra”, “europera zaharra”);
 - hizkuntza desberdin asko, batzuk ahaideak, beste batzuk ez.

4. Europera zaharra

- Vennemann (1994, 1998...):
 - ibai-izenak → europera zaharra = euskara (edo “Vasconic”).
 - Krahe (50etan): hidronimoak indoeuroparrak dira, nahiz eta oso arkaikoak izan.

4. Europera zaharra

- Lakarra (1996) eta Trask (1997: 366-367) Vennemannen kontra. Puntu ahulak:
 - **-a** atzizkia: Vennemannek euskarazko determinatzailearekin identifikatzen du, baina *-a* < **(h)ar*;
 - erroak (*Ag-ist-a*): **ls-* ~ eusk. **iz* 'ur' (Azkue 1905-1906). Baina cf. Mitxelena (1977): *izurde* (< **giza-* + *urde*), *Izpazter* (< **(h)aitz* + *bazter*), *izoki(n)* (< lat. ber. *esocina*), *izotz* (< **ihintz* + *(h)otz*).
 - + hasperenik ez!

5. Hizkuntza indoeuroparrak

- Bullet (1755-60): euskara hizkuntza zeltikoa
- Pallas (1786-89): Iparraldekoa zeltikoa, Hegoaldekoa ez.
- Chaho (1836): euskara eta sanskritoa
 - *hamaika*-ren ustezko etimologia (< **hama(r)-aika*; cf. sansk. *aikaleka* 'bat')
- Griera (1960): euskara hizkuntza erromantzea!!; euskal hitz guztiak latinetik letozke: *gizon* < BISON, *andere* < CAPRA , *seme* < SIMIUS, *alaba* < PAVA;

5. Hizkuntza indoeuroparrak

- Euskararen eta hizkuntza IEen antzinako kontaktua: zeltikoak (Mitxelena 1964, Gorrochategui 1987).
- Etimologia sinesgarri gutxi → arazoa: hizkuntz kontaktu luzea baina euskararen eragin urria utzi;
- Mitxelena (1964): mailegu zahar askoren lekuan geroagoko mailegu latindarrak sartu eta beste batzuk latinaren eraginpean itxuraldatu.

5. Hizkuntza indoeuroparrak

- Villamor (2012): metodo “astarloatarra”.
- Forni (2012, 2013):

Euskara	Indoeuropea
<i>erran</i>	*menth ‘ahoa’
<i>eseri</i>	*sed- ‘eseri’
<i>esku</i>	*deik- ‘hatza’

- Gorrochategui & Lakarra (2013): kritika.

5. Hizkuntza indoeuroparrak

- Blevins (2013):
 - Abiapuntua: aitzineuskararen arazo tipologikoak: /m/-ren falta, /s/ eta /z/-ren arteko bereizkuntza, *buru* bezalako egitura ugariegiak.

Euskara	etimologia	Indoeuopera
<i>izar</i>	< * <i>istar</i>	cf. gr. <i>aster</i> 'izar'
<i>buru</i>	< * <i>bru</i>	cf. sansk. <i>bhru-</i> , esl. zah. <i>bry/brüvT</i> 'bekain'

- Aitzineusk. sC-, /bh/, konts. taldeak...

6. Makrokonparaketak

- Makrokonparaketaren metodoa:
 - hizkuntzak familia handietan sailkatu;
 - metodo konparatzaile klasikora erabili gabe;
 - gizakien lehen hizkuntza ([Proto-World](#));
 - azaleko antzekotasunetan oinarritu;
 - hizkuntza ugari (praktikan “bi hizkuntzaren arteko konparaketa ugari”);
 - sailkapen askotan euskara agertu;
 - *mass comparisson, multilateral comparison, long-range comparison, distant genetic relationship...*

6. Makrokonparaketak

- Greenberg (1963), Afrikako hizkuntzen sailkapena. Greenberg (1987), Amerikako hizkuntzen sailkapena:
 - Ameriketako hizkuntzak hiru familietan (amerindiarra, na-denéa eta eskimo-aleutianoa);
 - familia amerindiarra / eskimo-aleutianoa, afroasiatikoa, indoeuroparra, uralikoa, dravidikoa;
 - metodo baliagarria hizkuntza guztiak elkarren ahaide direla frogatzeko.

6. Makrokonparaketak

- Afrikako eta Ameriketako hizkuntzen espezialistek hainbat kritika Greenberg-i:
 - metodoaz: hizkuntza askotako hitz zerrenda labur batean formaren eta esanahiaren azaleko antzekotasunak;
 - datuez: transkribapen okerrak, datuak hizkuntza oker bati egotzi, etab.
- Antzekotasunak ← kasualitatea (Igartua 1996).
- *Reductiones ad absurdum*: Traskek (1997: 412-414) euskararen eta hungarieraren artean.

6. Makrokonparaketak

- Arrakasta, bereziki hizkuntzalari ez direnen artean: “Ba al dira munduko hizkuntza guztiak elkarren ahaide?” (Hock & Joseph 1996: 487).
- 90etako hamarkadatik: gero eta interes handiagoa hizkuntzen makrofamiliari buruz; proposamen asko (Campbell & Poser 2008: 200 bat dakarte): afroasiatikoa, amerindiarra, eurasiatikoa (IE, uralikoa, eskimo-aleutianoa, ainu eta beste), indopazifikoa (Pazifikoko hizkuntza ez-austronesioak), nilo-saharianoa, nostratikoa, etab.

6. Makrokonparaketak

- **Nostratikoa:** “guri, munduko gure zatiari dagokiona ” (Eurasia + Afrikako Ip.) → hizkuntza IEak, afroasiatikoak (semitikoak barne), uralikoak, altaikoak, kartvelikoak, dravidikoak, sumeriera eta euskara.
- **Dené-kaukasikoa:** hizkuntza sino-tibetanoak, Kaukasoko iparraldeko taldeak (kartvelikoa ez), Siberiako zenbait hizkuntza, na-dené familia eta zenbait hizkuntza isolatu (sumeriera, etruskoa, burushaskia eta euskara).

6. Makrokonparaketak

- Bengtson & Ruhlen. Akatsak:
 - euskarazkoak ez diren morfemak: **gor* ‘haragi’, **bergi* ‘begi’, **abets* ‘ahots’, **oz* ‘zeru’...;
 - itzulpen okerrak: *bortz* ‘esku’, *nihaur* ‘bera’, *-ta-* ‘lokatiboaren atz.’;
 - latinetiko eta erromantzeetatiko maileguak: *azeri*, *xahu*, *zuku*, *zango*, *agure*, *moko*, *kasko*, *kaiku*...;
 - euskarazkoak ez diren hitzak: *marrano*, *becerro*;
 - hitz fonoestetiko eta adierazgarriak: *tximeleta*, *mara-mara* (‘ugari’), *tu*...

6. Makrokonparaketak

- segmentazio arbitrarioak: *aberats* (< lat. ABERE) → *a-berats*, *ukabil* (< *uko* + *bil*) → *-kab-*, *eskubarne* → *bar-* ‘ahur’; *a-din*, *e-gur*, *u-zki*, *be-larri*, *etab*.
- akatsen konbinaketak:
 - *bepuru* (*begi* + *buru*): ‘betile’ itzuli → *be-puru*; *-puru* ‘ile’; helburua ‘ile’, ‘betile’, ‘adats’ edo ‘biloska’ esanahiak dituzten hitzekin konparatzea;
 - *arroda* (< okz. *roda*): *adorra* forma dialektala (metatesiz) aipatzen dute → *a-dorra* / kauk. **t’wirV* ‘arroda’.

7. Desziframendu handiak

- “Desziframendu handiak” (Trask 1997: 360):
 - etruskoa, piktoa, minoikoa (A Lineala), iberiera;
 - ez espezialistak;
 - zientifikotasunik ez.

7. Desziframendu handiak

- **Saio isolatuak:** minoikoa (Gordon 1931), etruskoa (Ellis 1886, Esandi 1946), piktoa (Güter 1968), sumeriera (Löpelmann 1968); arazoak:
 - inskripzio zaharren interpretazio okerrak;
 - euskarari buruzko ezjakintasuna;
 - ezinezko irakurketa eta itzulpenak proposatzeko ikaragarritzko irudimena.

7. Desziframendu handiak

- Arnáiz & Alonso (1998, 1999...): euskararen bitartez zenbait hizkuntza deszifratu eta euskararen ahaide direla ere proposatu.
- Populazioen genetika → herri euskalduna, espainiarra, toskanarra, kretarra eta berbera ahaidetzea; hizkuntza komuna hitz egiten zuten.

7. Desziframendu handiak

“Tanto etruscos como vascos, como bereberes y como cretenses primitivos, utilizaban una lengua que, con pocas variantes, era común. La procedencia de esta lengua se puede remontar a la hablada por la población sahariana que migró hacia el norte del Mediterráneo cuando las condiciones climáticas se hicieron insostenibles (después de diez mil años a.C.)”
(Arnáiz & Alonso 1998: 38)

7. Desziframendu handiak

- Inskripzio iberiko, tartesiko, etrusko eta A Linealekoen desziframendua; errakuntzak:
 - aldaera dialektal sekundarioak;
 - mailegu garbiak;
 - euskaran ezezagunak diren hitzak;
 - irakurketetan egindako aldaketa arbitrarioak;
 - ezinezko sintaxia;
 - itzulpenetan erabilitako ikaragarritzko irudimena.

7. Desziframendu handiak

TRANS. FONÉTICA:

ATIN-BELA-UR

LENGUA EUSKERA:

ATEAN-BELA-UR

LENGUA ESPAÑOLA:

EN LA PUERTA-NEGRO-AGUAS

REDACCIÓN CASTELLANA:

**“EN LA PUERTA DE LAS AGUAS
NEGRAS”**

7. Desziframendu handiak

TRANS. FONÉTICA: **DERDETI-(I)S-KARBA-BEGOR-BAN(A)-
IR(A)**

LENGUA EUSKERA **DARDATU-EZ-KARBA-BEHOR-BANA-IRA**

LENGUA ESPAÑOLA: **TIEMBLA-NO-CUEVA-YEGUA-CADA UNA-
HELECHAL**

**REDACCIÓN CASTELLANA: “CADA YEGUA NO TIEMBLA EN EL
HELECHAL MÁS QUE EN LA CUEVA”**

7. Desziframendu handiak

TRANS. FONÉTICA: **SAFA/-/ALKI/-/LA/-/(H)/-/UNI/-/KAI/-
/NULA/-/(H)/-/I LI N/-/AI N (H)**


LENGUA EUSKERA **SABA/-/ALKI/-/LA(H) /-/JAUN/-/KAI/-
/NULA/-/ILUN/-/AIN**

LENGUA ESPAÑOLA: **VIENTRE/-/ARCÓN/-/LUGAR A DONDE/-
/SEÑORA/-/RIBERA/-/COMO/-
/OSCURIDAD/-/TANTO COMO**

**REDACCIÓN CASTELLANA: “OSCURIDAD EN LA RIBERA DE
LA ‘SEÑORA’ TANTO COMO EN EL
LUGAR DEL VIENTRE DEL ARCÓN”**

7. Desziframendu handiak

- Euskoiberismoa (XVI. mendetik)



7. Desziframendu handiak

- XVI-XVIII. m.: erromatarren aurreko hizkuntzak lotu. Euskara iberiar penintsula osoan hedatu.
- Humboldt (1821): iberiera euskararen ama; penintsulako toponimia zaharra aztertu.
- XIX. m.: European arrakasta (Schuchardt...).
- 1920etan, Gómez Morenok idazkera iberikoa deszifratu: signario erdisilabikoa.
- Bähr-en tesia (1948): lotura frogatu gabe.
- 50etatik Mitxelena eta Tovarren lanak: “antzekotasunak” bai, ahaidetasunik ez.

7. Desziframendu handiak

- Román del Cerro (1993):

Iberiera	Euskara			
baSerokeiunbaida	<i>matzer</i>	<i>ok(a)</i>	<i>una</i>	<i>baida</i>
	deforme	indigestión	estrecha	bahía

Itz.: ‘la ensenada del canal cuyo cauce es tortuoso’

7. Desziframendu handiak

- Zenbakiak (Orduña 2005, Ferrer i Jané 2009):

Valor	Ibérico	Marca de Valor	Vasco
1/2	erdi	erder	<i>erdi</i>
1	ban	ban	<i>bat</i>
2	bi(n)		<i>bi</i>
3	irur		<i>(h)iru(r)</i>
4	lau(r)	l? ⁵⁴	<i>lau(r)</i>
5	bors(te)		<i>bortz / bost</i>
6	sei	seirkir	<i>sei</i>
7	sisbi		<i>zazpi</i>
8	sorse		<i>zortzi</i>
10	(a)bañ		<i>(h)amar</i>
20	oñkei		<i>(h)ogei</i>

- Eztabaida: Lakarra (2010), Orduña (2011).

Ondorioak

- Sailkapenak zertarako?
- Metodoa zorrotz aplikatzea
- Euskararen historiaz aurreratzerik ez
- Salbuespena: akitaniera